

## 2019KO DONOSTIAKO DANBORRADA: ZUMAIA ETA DONOSTIA ARTEAN GAUEKO AUTOBUSEN ZERBITZUA

Euskotrenek, Eusko Jaurlaritzaren esku dagoen Sozietate Publikoak, Donostiako hurrengo Danborradan zehar UK49G Zumaia – Donostia N-634 errepideko Lurredebus linean gaueko autobusen zerbitzu berezia eskainiko du.

**Urtarrilaren 19an** larunbat gaueko ohiko eskaintza mantenduko da honako zirkulazioekin:

- Zumaia – Donostia: 7 zirkulazio Zumaiatik, honako irteerekin 23:00, 0:00, 1:00, 2:00, 3:00, 4:00 eta 5:00.
- Donostia – Zumaia: Donostiatik, 8 zirkulazio honako irteerekin 23:30, 0:00, 1:00, 2:00, 3:00, 4:00, 5:00 eta 6:00.

Horiei, gaueko autobus zerbitzu berezia gehitu behar zaio **igandean, urtarrilaren 20an**, honako zirkulazioekin:

- Zumaia – Donostia: 4 zirkulazio Zumaiatik, honako irteerekin 23:00, 0:00, 1:00 eta 2:00.
- Donostia – Zumaia: 5 zirkulazio Donostiatik, honako irteerekin 23:30, 0:00, 1:00, 2:00 eta 3:00.

### **Astelehena, urtarrilak 21: errefortzuak kentzea honako lineetan Lurredebus DB02 Ermua – Donostia (AP-8) eta UK10 Zumaia – Donostia (AP-8)**

Horrez gain, astelehenean, urtarrilaren 21ean, Ermua – Donostia (AP-8) eta Zumaia – Donostia (AP-8) lineetan errefortzuak kendu egingo dira.

Hain zuzen ere, kendutako errefortzuak honako hauek izango dira:

- DB02 Ermua – Donostia (AP-8): 7:10 Eibar – Donostia (zuzena); 7:10 Eibar – Donostia (EHU-tik); eta 14:20 Donostia – Eibar.
- UK10 Zumaia – Donostia (AP-8 Zarautzetik): 13:00 Donostia – Zumaia; 14:00 Donostia – Zumaia; 15:00 Donostia – Zumaia; eta 18:00 Donostia – Zumaia.

Informazio gehiago behar duten erabiltzaileek Euskotrenen 944 333 333 telefono zenbakia erabil dezakete. Konpainiaren [www.euskotren.eus](http://www.euskotren.eus) webgunean eta twitterreko **@euskotrenEJGV** gunean ere jaso dezakete informazioa.

Igorpen data: osteguna, 2019ko urtarrilaren 17a

*Euskadi, auzolana, bien común*

